

1. Balorezko proposamena

Gure proposamena jendeak haien argi fakturak txikiagotzea da, haiek kontrolatu dezaten haien gastuak. Batez ere gauden momentuan, jendeak etxean gehiago egoten da, hortaz argi gehiago kontsumitzen dute eta fakturak handiagoak dira, beraz, garestiagoak. Ondasun ukigarria, produktua beraz, kuadro elektriko itxura du, baina askoz ere txikiagoa eta sinpleagoa.

ArgiMaria produktuak bi atal ditu: alde batetik, instalazio elektrikoan instalatuta joango den gailua eta bestetik, familien kontsumoa programatzeko aplikazioa. Lehenengoaren helburua, argiaren intentsitatea kontrolatu eta erregulatzea da. Bigarrena, aldiz, kontsumoaren planifikazioa eta kontrola kudetazeko aplikazioa da. Aplikazio honek aukera ematen du, gure diru sarreraren arabera, epe jakin bateko argiaren kontsumoaren zenbatekoa programatzea eta aldi berean, epe horretan zehar izaten ari dugun kontsumoaren jarraipena egitea. Programatutako kontsumoa gainditzear daudenean abisua emango du, berriro programatzeko aukera emanez. App honen bitartez, programatu dugun kontsumoa lortzeko, instalazio elektrikoan ezarrita doan gailuak argiaren intentsitatea erregulatuko du.

Aplikazioa instalatzeko smartphone-rik ez duten pertsonak beren koadro elektrikoak programatzeko asesore baten laguntza eskatu ahal izango dute. Egoera hori, batez ere hirugarren adineko pertsonetan emango da, oraindik batzuk teknologia berriak ez dituztelako erabiltzen.

Gure aplikazioa gizartean sortu diren arazoak konpontzeko baliogarri baino bailogarriagoa da. Demagun egun batean argia 6 orduz kontsumitu nahi duzula eta 6 ordu eta minutu bat kontsumitu duzunean, orduan aplikazioa notifikatuko dizu (soinua eginez) zu konturatu zaitez. Hauxe da, limitea pasatu bezain laster konturatuko zara. Aplikazioa oro har baliogarria da argiaren informazio guztia ikusteko eta kontrolpean izateko.

Garrantzitsuena da arazoak konpontzerako orduan duen eraginkortasuna, zenbait arazoei konponketa eskainiko duelako. Adibidez, argiaren kontsumo duin bat egiteko aukera emango du.

Gainera, fakturak ordaintzerakoan sortzen diren berme eta galdagarritasun arazoak ekiditzen ditu eta hartzekodunekin zorrak gutxitzen ditu. Argiaren kontsumo erregulatu eta programatu, eta pertsonalizatzeko aukera eskaintzen du.